AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

65

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 13koa, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariarena, Estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioen lehiaketa bateraturako epaimahaia izendatzen duena.

Estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak lehiaketa bateratua arautzen du bosgarren xedapen gehigarrian, eta hor ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak epaimahai bat izendatuko duela euskararen jakite-maila egiaztatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoak berak zehaztutako merezimenduak baloratzeko.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek aipatutako 2012rako lehiaketa bateraturako deialdiak egin dituztenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2012rako lehiaketa bateratua baloratzeko epaimahaiko kideak izendatzea. Honela osatuko da epaimahaia:

Titularrak:

– Epaimahaiburua:

José Luis Aguirre Arratibel jauna.

– Mahaikideak:

Luis Sáenz de Santa María Muniátegui jauna.

Juan Carlos González Olea jauna.

Julian Eizmendi Zinkunegi jauna.

María Victoria Idoia Martínez Peñalba andrea.

Susana Jauregialzo Arregi andrea, IVAPen izenean eta soilik euskararen jakite-maila egiaztatzeko probetarako.

Ordezkoak:

– Epaimahaiburua:

Zelai Nikolas Ezkurdia andrea.

– Mahaikideak:

María Idoia Gómez Lorente andrea.

José Antonio Sainz Nieto jauna.

M.ª Aranzazu Arana Learte andrea.

Alfredo Barrio Gil jauna.

Julián Cabezas Urquiaga jauna, IVAPen izenean eta soilik euskararen jakite-maila egiaztatzeko probetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 13a.

Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendaria,
JOSÉ RAIMUNDO CUESTA GRAÑA.